

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Foru Arauak

HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

5.145

799/2001 FORU AGINDUA, abuztuaren 1ekoa, Bernedoko 12 zenbakiko poligonoko 10 zenbakia duen lur sailaren 2B jardun unitatearen Alorreko Planaren espedienteari dagokiona.

“Bernedoko 12 zenbakiko poligonoko 10 zenbakia duen lur sailaren 2B jardun unitatearen Alorreko Planaren espedientea ikusita.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 9669 zenbakia duen idazkiaren bitartez, zein Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2001eko maiatzaren 24an sartu baitzen, Bernedoko Udalak Bernedoko 12 zenbakiko poligonoko 10 zenbakia duen lur sailaren 2B jardun unitatearen Alorreko Planaren espedientea bidali zuen.

Bigarrena.- Espedientea 2001eko otsailaren 7an behin-behingo onetsi zen eta hilabete bateko epean jendaurrean jarri zen, 2001eko martxoaren 21eko 33 zenbakiko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN eta urte bereko martxoaren 8ko El Correo egunkarian iragarkiak argitara emanaz.

Hirugarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ezenez gero, Udaltzako osoak 2001eko maiatzaren 2ko bilkuran espedientea behin-behingo onestea eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, aldundiak behin-betikoz onetsi zezan.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Alorreko Planaren aldaketa honek Bernedon dagoen Urtubiko 2B jardun unitatearen eremua zehazki antolatzen du eta Antolamendu Arauen 10. Aldaketa Zehatzaren helburua izan zen. Aldaketa Zehatz hau 2001eko urtarrilaren 18ko Foru Aginduaren bitartez onetsi zen.

Eremu honen ezaugarriak hurrengo hauek dira: 15.346,47 m²-ko lur hiritargarriko eremua da, egoitzarako kalifikazioa duena eta bere gehieneko dentsitatea 6,6 etxebizitza/ha, eraikigarritasuna 0,2 m²erk./m²lur etxebizitzetarako eta 0,2 m²erk/m²lur beste erabilera batzuetarako eta bertan familia bakarreko etxebizitza isolatuak eta parekatuak onartzen dira. Jardun sistema konpentsazioa da.

Bigarrena.- Agiriaren edukia aztertutakoan, indarreko legeak xedatzen dituen zehaztapenak eta Antolamenduko Arauak betetzen direla ikus daiteke.

Ondorioz, eta ditudan ahalmenez baliatuta, hurrengo hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Bernedoko udalerriko Urturiko 12 zenbakiko 10 zenbakia duen lur sailaren 2B jardun unitatearen Alorreko Planaren espedientea behin betiko onestea.

Bigarrena.- Oraingo ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, ebazpena eman duen Organo berberaren aurrean jakinarazpena jasotzen den edo argitara ematen den biharamunetik aurrera eta hilabete bateko epean berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke edo bestela, zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aurrean jakinarazpena jasotzen den edo argitara ematen den biharamunetik aurrera eta bi hilabeteko epean aurka daiteke; hala xedatzen baitute, alde batetik, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena) 116. eta 117. artikuluetan, eta bestetik, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen 2971998 Legeak 46.1 artikuluan.

Hala eta guztiz ere, egokitzat hartzen den beste edozein errekurtso ere aurkez daiteke.”

Vitoria-Gasteiz, 2001eko abuztuaren 1a.- Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIIVILLA.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Ordenes Forales

DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y URBANISMO

5.145

ORDEN FORAL 799/2001, de 1 de agosto, en relación con el expediente de Plan Parcial de la UE-2B de la parcela número 10 del Polígono número 12 en el municipio de Bernedo.

“Visto el expediente de Plan Parcial de la UE-2B de la parcela número 10 del Polígono número 12 en el municipio de Bernedo.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante escrito, con número 9669 y fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Alava del día 24 de mayo de 2001, el Ayuntamiento de Bernedo remite expediente de Plan Parcial de la UE-2B de la parcela número 10 del Polígono número 12 en el municipio de Bernedo.

Segundo.- El expediente fue aprobado inicialmente el 7 de febrero de 2001, sometiéndose a información pública por el plazo de un mes, mediante anuncios publicados en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 33 de 21 de marzo de 2001 y en el diario “El Correo” del día 8 de marzo del mismo año.

Tercero.- Durante la fase de exposición pública no se presentaron alegaciones por lo que el Pleno de la Corporación Municipal, en sesión del día 2 de mayo de 2001, acordó aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva.

FUNDAMENTOS

Primero.- La presente modificación de Plan Parcial ordena por menorizadamente el ámbito de la UE-2B de Urturi en Bernedo, y fue objeto de la 10ª Modificación Puntual de NNSS aprobada definitivamente por Orden Foral el 18 de enero de 2001.

Se trata de un ámbito de 15.346,47 m², apto para urbanizar y calificado como residencial, con una densidad máxima de 6,6 viv/ha, edificabilidad de 0,2 m²c/m²s de uso residencial y 0,2 m²c/m²s de otros usos, y en el que se permite el tipo edificatorio de vivienda unifamiliar aislada y pareada. El sistema de actuación es compensación.

Segundo.- Analizado el contenido del documento, se comprueba que cumple las determinaciones establecidas en la legislación urbanística vigente y en las Normas Subsidiarias.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial de la UE-2B de la parcela número 10 del Polígono número 12 de Urturi en el municipio de Bernedo.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Tercero.- Contra la presente Resolución podrá ser interpuesto recurso potestativo de reposición ante el mismo Órgano que ha dictado la misma, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación o publicación, o ser impugnada directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación o publicación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, así como en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Todo ello, sin perjuicio de que puedan ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.”

Vitoria-Gasteiz, 1 de agosto de 2001.- El Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIIVILLA.

URTURIKO 2B JARDUN UNITATEA ANTOLATZEKO PLAN PARTZIALA

ORDENANTZA ARAUTZAILEAK

- 1.- Orokortasunak eta kontzeptuen terminologia.
- 2.- Lurraren Hirigintza Erregimena.
- 3.- Eraikuntzari buruzko Arauak.

1.- OROKORTASUNAK ETA KONTZEPTUEN TERMINOLOGIA.

Antolamenduko Araudiak 61. artikuluan xedatu duenaren arabera, lurraren eta eraikuntzen erabileran arautzen dira, hauek publikoak zein pribatuak direlarik ere. Ordenantza hauen izaera, bereziki, arauena da, eta hurrengo arloak arautzen dituzte: zonen banaketa, eraikuntza motak eta gehieneko garaierak eta edukierak.

Ordenantza hauen aplikazio eremua Antolamenduko Alorreko Planaren agiri grafikoetan agertzen diren mugen barruan kokatzen da. Oro har, kontzeptuen definiziorako Bernedoko Udal Antolamenduko arauetan adierazitakotik abiatzen gara.

2.- LURRAREN HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Bernedoko Antolamenduko Arauetan definitzen den erabilera nagusia familia bakarreko egoitzarena da eta oraingo Alorreko Planean hau familia bakarreko etxebizitza isolatuan zein parekatuan oinarritzen da. Lurrean beste zona batzuk banatzen dira hurrengo erabilerarako: hezkuntzako ekipamendua, eta herri eta gizarte interesa duten zerbitzuen ekipamendua, berdeguneak eta jolas eremuak.

Etxebizitzarako kalifikazioa duen zonan hurrengo erabilerak bateagarriak dira: ostatuak, nekazaritza, kirola eta erabilera osagarriak. Eraikuntzaren beheko solairuan aparkalekuak onartzen dira. Aparkaleku hauek eraikuntzan bertan zein atxikitako eraikinetan egon daitezke. Era berean, haztegiak eta negutegiak instalatzea onartzen da.

Erabilera bateragarri dagozkien eraikuntzek lur sailaren gainontzeko eraikuntzekiko tratamendu harmonikoa izan behar dute, beti ere, estetika baldintzek zehazten dituzten mugak errespetatuz. Egoitza erabilerarako agiri honek lur sail bakoitzerako definitzen dituen neurrien parametroak kontuan hartu behar dira.

Hezkuntzako ekipamenduaren erabilera eta herri eta interesa duten zerbitzuen ekipamendua 1.000 m² zabal den lur sail batean zehazten da. Bere kokapena eta bere morfologia agiri grafikoetan adierazten da. Erabilera honi dagozkien eraikuntza parametro zehatzak dagokion atalean zehazten dira.

Egoitzarako ez den zonan onartzen diren erabilera generikoak ekipamenduarenak, eremu libreak, komunikazioak eta garraioak, ura eta Udal Antolamenduko Arauetako artikuluek adierazitakoak dira.

Erabilera bakoitzeko baldintza zehatzak Bernedoko Udal Antolamenduko Arauetan xedatutakoekin bat etorriko dira, eta osorik aplikatuko zaizkie bai egoitza erabilerari bai gainontzeko erabilera osagarriari.

Hiritartze Proiektuak zerbitzuak ezartzeko behar diren agiri guztiak izango ditu. Zerbitzu hauek, besteak beste, hurrengo hauek izango dira: uren hornidura, estolderia, argindarraren hornidura, argiteria publikoa, gasa eta Antolamenduko Alorreko Plan honetako arauetan sar daitezkeen ekipamenduko eta diseinu hiritarraren gainontzeko elementuak.

Honen garapena eta erakuntza Hirigintza Antolamenduko Araudiaren 67. eta 70. artikuluetan xedatutakoarekin eta Udalak emandako gutxieneko irizpide eta parametroekin bat etorri behar da.

Agiri honi dagokion tituluaren zein erantsitako agiri grafikoetan adierazitako hirigintza baldintzei buruzko zehaztapenak bete behar izango dira.

Oro har, partzelazioa erantsitako agiri grafikoetan islatutakoarekin bat etorri behar izango da. Eraikuntzaren antolamendu zehatzaren aldaketak eta partzelazioak izapidetzeko, hurrengo baldintza hauek betetzen dituen zehaztasunen azterketa bat onetsi behar da:

- Gutxieneko lur sail garbia 1.000 m², etxebizitzaren gutxieneko kopurua 9 izango delarik.
- Mugetarainoko tartea 3 m gutxienez.
- Eraikuntzen arteko tartea 6 m gutxienez.

PLAN PARCIAL DE ORDENACIÓN DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 2B. DE URTURI

ORDENANZAS REGULADORAS

- 1.- Generalidades y Terminología de conceptos.
- 2.- Régimen Urbanístico del Suelo.
- 3.- Normas de edificación.

1.- GENERALIDADES Y TERMINOLOGIA DE CONCEPTOS.

En razón a lo señalado por el artículo 61 del Reglamento de Planeamiento se regularan y reglamentaran los usos de los terrenos y de las edificaciones, ya sean publicas y privadas. La naturaleza de estas Ordenanzas es esencialmente normativa, y regulan la zonificación, tipos de construcción y dimensiones máximas de alturas y volúmenes.

El ámbito de aplicación de las Ordenanzas se concreta dentro de los límites reflejados en la documentación gráfica del presente Plan Parcial de Ordenación. En general, para la definición de conceptos se parte de lo expresado en las Normas Subsidiarias Municipales de Bernedo.

2.- REGIMEN URBANISTICO DEL SUELO.

El uso dominante del suelo definido por las Normas Subsidiarias de Bernedo es el de Residencial Unifamiliar, concretándose en el presente Plan Parcial las categorías de edificio de vivienda unifamiliar aislada y pareada. Además se zonifican terrenos para uso de equipamiento educativo y de servicios de interés público y social, espacios verdes y área de juegos.

Se consideran compatibles en la zona calificada para la edificación de viviendas los usos hotelero, agrícola, deportivo y complementarios. Se permite el uso de aparcamiento en la planta baja de la edificación, incluida en la misma o componiendo volúmenes anejos. Se permite asimismo la instalación de viveros o invernaderos.

Las edificaciones correspondientes a los usos compatibles deberán tener un tratamiento armónico con el resto de las edificaciones de la parcela, en función de las limitaciones fijadas por las condiciones estéticas. Se deberán tener en cuenta los parámetros volumétricos definidos para cada parcela en el presente documento referidos al uso residencial.

El uso de equipamiento educativo y para servicios de interés público y social viene concretado en una sola parcela de 1.000 m² de superficie. Su localización y morfología se expresan en la documentación gráfica. Los parámetros edificatorios específicos de este uso se determinaran en el apartado correspondiente.

Los usos genéricos permitidos en la zona no residencial son los relativos a equipamiento, áreas libres, comunicaciones y transportes, agua y otros, señalados en los artículos correspondientes de las Normas Subsidiarias Municipales.

Las condiciones específicas de cada uso se corresponderán con las señaladas en las Normas Subsidiarias Municipales de Bernedo para cada apartado concreto, siendo de entera aplicación tanto para el uso residencial como para el resto de usos compatibles.

El Proyecto de Urbanización contendrá la documentación necesaria para la implantación de servicios tales como abastecimiento de agua, alcantarillado, suministro de energía eléctrica, alumbrado público, gas y resto de elementos de equipamiento y diseño urbano que puedan integrarse en las directrices del presente Plan Parcial de Ordenación.

El desarrollo y formalización del mismo se deberá ajustar a lo señalado en los artículos 67 a 70 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico, así como los criterios y parámetros mínimos emanados del Ayuntamiento.

Se cumplirán las especificaciones referidas a condiciones de urbanización expresadas tanto en el título correspondiente del presente documento como en la documentación gráfica adjunta.

En general la parcelación deberá ajustarse a lo reflejado en la documentación gráfica adjunta. Las modificaciones de la ordenación pormenorizada de la edificación y parcelaciones deberán tramitarse mediante la aprobación de un estudio de detalle que cumpla las condiciones de:

- Parcela mínima neta de 1.000 m². con un número máximo de 9 viviendas.
- Separación a linderos de 3 ml. mínimo.
- Separación entre edificaciones de 6 ml mínimo.

- Gainerako baldintzak, Bernedoko Hiri Antolamenduko Arauen 23-Bis artikulua araberara.

Partzelazio guztiek baimena behar izango dute eta horretarako gutxienez hurrengo agiriak eskatuko zaizkie:

- Kokapenaren planoak. Gutxieneko eskala: 1/2000.

- Plano kotaduna, mugak edo eragindako oinarritzko lur sailak adierazten dituenak. Eskala: 1/500.

- Partzelazioaren planoak. Gutxieneko eskala: 1/500.

- Memoria. Hemen gutxienez hurrengo datu hauek adieraziko dira: jabariaren eta zamen egoera (Jabetzaren Erregistroaren arabera) adieraziko da, Alorreko Planak lur sailari edo lur saille ematen dien antolamenduaren tratamendua eta dagoenaren eta proposatutakoaren deskribapena eta proposatutakoaren egokitasunaren arrazoiak.

Prozedura hau bakarrik erabil daiteke Antolamenduko Alorreko Planak antolatzen dituen lur sailen eta partzelazioen planoaren partzelatzeko eta ondoren honen kudeaketa betearazi eta formalduko da. Egon litezkeen lur sailen birbanaketa dagokien planoak adierazten den partzelazioari egokitu zaizkio eta beti etxebizitzetarako gehienez 9 lur sail utziko dira. Zati-tzetik, bazter-tzetik edo elkartzetik sortzen diren lur sail berri guztiek agiri honetan dagokien atalak lur sailletarako zehazten dituen baldintzak bete behar izango dituzte.

3.- ERAIKUNTZARI BURUZKO ARAUAK.

3.1.- Zehaztapen orokorrak.

Antolamenduko Alorreko Plan honetako hirigintza eta eraikuntza parametroei buruzko zehaztapenetan erabiltzen diren kontzeptuak definitzeko, Bernedoko Udal Antolamenduko Arauei buruzko ordenantza idatzian adierazitakotik abiatzen gara.

Antolatutako sektorearen erabilera nagusiari dagokionez, oinarritzko eraikuntzaren tipologia isolatutako edo parekatutako eraikuntzak izango dira. Eraikuntza hauek garbi mugatuta dauden lur sailen independenteen mugetatik atzera emango dira. Aurrekoa dela eta, eraikuntzen fatxadaren ondoko jabetzak ez dituzte ukituko, parekatutako eraikuntzen mehelinak izan ezik.

Erabili den antolamendu sistemak isolatutako edo parekatutako eraikuntzen antolamenduaren berezko ezaugarriak agertzen ditu, neurrien parametroetan islatzen dena. Horrela ba, morfologia hiritarrera moldatzen da, non eraikuntzatik kanpoko eremu librean egoera nagusi baita. Eremu hau pribatuak edo publikoak izan daitezke eta bere tratamendua edozein izan daiteke. Eraikinen fatxadak ez dira jarriko ez kalearen lerroakaduraren gainetik ez lur sailen mugen gainetik. Ondoko lur sailaren mugari atxikitako eraikuntzak onartzen dira, baldin eta familia bakarreko eraikina ateratzen bada, ondokoaren proiektua komuna bada eta aldi berean burutzen badira. Eraikuntza, eraikuntza bera duen lur sailaren arabera antolatzen da eta bai harreman hauek bai eraikin batek ondoko eraikinekin dituen harremanak antolamenduan jasotzen diren horiek dira.

Eraikuntzaren forma zehatza lur sail bakoitzari aplikatu beharreko hirigintzako eta eraikuntzako parametroak guzuzatuz definitzen da.

3.2.- Hirigintzako parametroak.

- Eraiki daitekeen azalera. Eraiki daitekeen azalera osoa Bernedoko Antolamenduko Arauek xedatutako gehieneko eraikigarritasunaren koefizienteak definitzen du. Koefiziente honek etxebizitzarako eraikuntzaren kasuan 0,2 metro karratu zehazten du eta beste erabilera bateragarrien kasuan antolamendutik ateratzen den lur sail garbi bakoitzeko azalaren metro karratuko 0,2 metro karratu.

Etxebizitzetarako ateratzen diren lur sailen azalera garbi osoa 11.208,99 m²-koa da. Horrela ba, antolatutako eremuan etxebizitzetarako eraiki daitekeen azalera osoa eraikitako 2.241,80 m²-koa da. Eraikin bateko azalera eraiki osoa kalkulatzeko Bernedoko Udal Antolamenduko Arauetako artikuluetan neurtzeko xedatzen diren irizpideak aplikatuz egingo da.

- Irabazte xedea duen hirigintza aprobetxamendua. Lur hiritar-garria. Hurrengo ezaugarriak dituen azalera eraikigarri osoa 2.241,80 m²-koa da: erabilera nagusia familia bakarreko etxebizitza da, bere eraikuntzako tipologia familia bakarreko etxebizitza isolatua edo parekatua eta ondo mugatutako ondoko lur sailen mugetatik atzera eman dago. Erreferentziako luraren proiektzio horizontalak duen azalera 15.346,47 m²-koa denez gero, irabazte xedea duen hirigintza aprobetxamendua 0,2921 da. Udalari laga zaion irabazte xedeko hirigintza aprobetxamendua hirigintza aprobetxamendu osoaren %10 da.

- Resto de condiciones según artículo 23-Bis de las NNSS de Bernedo.

Toda parcelación deberá quedar sujeta a licencia exigiéndose como mínimo la siguiente documentación.

- Plano de situación. Escala mínima 1/2000.

- Plano acotado indicando linderos de finca o fincas matriz afectadas. Escala 1/500.

- Plano de parcelación. Escala mínima 1/500.

- Memoria exponiendo como mínimo el estado de dominio y de cargas según Registro de la Propiedad, tratamiento de la ordenación del Plan Parcial a la finca o fincas y descripción de lo existente y lo propuesto justificando su procedencia.

Este procedimiento será únicamente posible para parcelar conforme al plano de fincas y parcelas que se deriva de la ordenación del presente Plan Parcial de Ordenación y posteriormente a la ejecución y formalización de la gestión del mismo. Las posibles reparcelaciones se adaptarán a la parcelación reflejada en el plano correspondiente respetándose siempre el número máximo de 9 parcelas de uso residencial. Las nuevas parcelas surgidas de cualquier subdivisión, segregación o agrupación deberán cumplir las condiciones exigidas para las parcelas en el apartado correspondiente del presente documento.

3.- NORMAS DE EDIFICACION.

3.1.- Determinaciones generales.

Para la definición de los conceptos utilizados en las determinaciones referentes a parámetros urbanísticos y edificatorios presentes en este Plan Parcial de Ordenación se parte de lo expresado en la ordenanza escrita de las NNSS Municipales de Bernedo.

Atendiendo al uso predominante del sector ordenado, la tipología edificatoria básica será la de edificación aislada o adosada situada retranqueada con respecto a los linderos de parcelas independientes bien delimitadas físicamente, de modo que los planos de fachada de las construcciones no tengan contacto alguno con las propiedades colindantes a excepción del muro medianero en el caso de edificaciones adosadas.

El sistema de ordenación adoptado presenta características propias de la ordenación por edificación aislada o adosada concreta por parámetros volumétricos. Así, se corresponde con la morfología urbana en la que domina la situación de espacios libres exteriores a la construcción, ya sean públicos o privados, y con independencia de su tratamiento. Las fachadas de los edificios no se sitúan ni sobre alineación de calle ni sobre linderos de parcela. Se admite la edificación adosada al lindero de la parcela contigua de modo que resulte un edificio pareado de vivienda unifamiliar con proyecto común con el colindante y su ejecución sea simultánea. La edificación se organiza en relación a la parcela que la soporta, y tanto estas relaciones como las de cada edificio con los de su entorno son las que realizan la ordenación.

La forma concreta de la edificación se define mediante el desarrollo de parámetros urbanísticos y edificatorios aplicables a cada parcela.

3.2.- Parámetros urbanísticos.

- Superficie edificable. La superficie edificable total viene definida por el coeficiente de edificabilidad máxima determinado por las NNSS Municipales de Bernedo. Este fija en 0,2 los metros cuadrados de edificación residencial y 0,2 los metros cuadrados de otros usos compatibles por metro cuadrado de superficie de cada parcela neta resultante de la ordenación.

La superficie neta total de las parcelas resultantes destinada a uso residencial es de 11.208,99 m². Así la superficie edificable total residencial del área ordenada es de 2.241,80 m² construidos. La superficie edificada total de un edificio se computara aplicando los criterios de medición establecidos en el artículo correspondiente de las NNSS Municipales de Bernedo.

- Aprovechamiento urbanístico lucrativo. Suelo apto para urbanizar. La superficie total edificable de uso característico residencial unifamiliar en su tipología edificatoria de vivienda unifamiliar aislada o pareada y retranqueada en relación a los linderos de parcelas independientes bien delimitadas físicamente es de 2.241,80 m². La proyección horizontal del terreno de referencia tiene una superficie de 15.346,47 m². por lo que el aprovechamiento urbanístico lucrativo es de 0,2921. El aprovechamiento urbanístico lucrativo cedido al ayuntamiento es el 10% del aprovechamiento urbanístico total.

- Etxebizitzaren dentsitatea. Bernedoko Udal Antolamenduko Arauek zehazten duten gehieneko etxebizitzaren dentsitatea 6,6 etxebizitza hektareako da, eta beraz, antolatutako azalerari aplikatuta, guztira 9 etxebizitza ateratzen dira.

3.3.- Eraikuntzako parametroak.

- Mugen gutxieneko neurriak. Banatzetik edo elkartzetik ateratzen diren lur sail independente berrien fronteko mugaren gutxieneko neurria 10 m-koa izango da.

- Eraiki daitekeen gutxieneko lur saila. Banatzetik edo elkartzetik atera den edozein lur sailek eduki behar duen gutxieneko azalera 1.000 m²-koa da. Onartzen den gehieneko etxebizitza kopurua 9 da. Lur sail independenteetan kokatu behar dira; ondorioz, banatzetik edo elkartzetik etxebizitzetarako 9 lur sail baino gehiago aterako balira, herri jabari eta erabilerako eremuai gainontzeko azalera lagako zaie.

- Eraikuntzetatik mugetarainoko tartea. Ateratzen diren lur sailletako eraikuntzak gutxienez muga guztietaraino 3 m atzera emango dira. Atxikitako eraikuntza izanez gero, ondoko lur sailekoaren proiektua komuna izan behar du, estali gabeko mehelinik egon ez dadin. Aipaturiko proiektua dagozkion udal zerbitzuek onetsi behar dute eta bi lur sailetan aldi berean burutu behar da.

- Eraikuntzen arteko tartea. Lur sail baten barruan isolatutako eraikuntzak eraiki behar direnean haien artean egon behar den gutxieneko tartea 5 m-koa izango da.

- Okupa daitekeen azalera. Lur sail batean okupa daitekeen gehieneko ehunekoa ateratzen den lur sail garbiaren azalaren %25 izango da.

- Eraikuntzaren neurriak. Edozein norabidetan neurtuta, fatxadaren gehieneko luzera gehienez ere 25 m-koa izango da. Gehieneko solairu kopurua, jatorriaren kotaren gainetik, 2 gehi estalkipekoa da, beheko solairua barne. Eraikuntzak jatorriaren kotatik hegalkin edo erlaitzeraino izan dezakeen gehieneko garaiera 6 m-koa izango da. Garaiera honen gainetik onartzen den makurutako estalkiak gehienez ere %50eko malda izango du.

- Solairuaren garaiera librea. Etxebizitzaren gutxieneko garaiera librea 2,60 m-koa izango da. Etxebizitzan sartzeko sarrera, korridoreak eta komunak 2,40 m altu izatea onartuko da.

3.4.- Estetika baldintzak.

- Materialak. Edozein material, bai teknologia berrien bitartez industria materialak ere, erabiltzea onartzen da, baldin eta inguruarekin bat badatzo. Eraikinaren fatxada guztietako osaketaren baldintzak eta materialak fatxada nagusikoak bezala tratatuko dira.

Eraikuntza eta egitura teknika tradizionalak imitatu nahi dituzten materialak erabiltzea debekatuta dago; era berean, eskualdekoak ez diren herri arkitekturaren ereduak imitatu nahi dituzten eraikinak erakitzea debekatuta dago.

- Fatxadetako irtenuneak eta sartuneak. Balkoiak, balkoi korrituak eta behatokiak ezin izango dira 0,90 m baino gehiago atera fatxadaren lerrokaduratik. Hegalkinak ezin izango dira 0,40 m baino gehiago atera fatxadaren lerrokaduratik. Hegalkin guztiek ez dute fatxada osoaren luzeraren %50 baino gehiago gaintutuko.

Zeregin guztietarako estalkiko erlaitzak ez dira hegalkintzat hartuko. Haien gehieneko hegala 1,5 m baino gutxiago izango da. Eta eraikuntzaren perimetro guztian egon daiteke.

- Hesiak. Lur sailak, herri bide eta guneeetara ematen dutenean, gehienez ere 0,80 m altu diren elementu itsuekin itxiko dira eta itxiturak 1,80 m-etarainokoak izan daitezke opakoak ez diren materialekin, hala nola, metalezko hesiak, landarezko hesiak, eta abar.

Beste lur sail batzuekiko mugetan 1,80 m altu diren landareekin edo hesiekin itxi daiteke.

Ez da inoiz pertsonak edo animaliei kalteak ekar diezazkiekeen materialik onartuko itxituren bukaerarako.

- Beste parametro batzuk. Patioak: edozein patio mota egitea debekatuta dago. Galeriak: galeriak egitea onartzen da, kristalezko itxitura dutenak zein ez.

Agiri honetan arautzen ez diren parametroek Bernedoko Udal Antolamenduko Arauek xedatzen dituzten baldintza orokorrak eta sektorearen legeria edo aplika dakieken maila handiagoko legeria bete behar dute.

- Densidad residencial. La densidad residencial máxima determinada por las NNSS Municipales de Bernedo es de 6,6 viviendas por hectárea, que, aplicada a la superficie ordenada, da un total de 9 viviendas.

3.3.- Parámetros edificatorios.

- Dimensión mínima de linderos. La dimensión mínima del lindero frontal de las parcelas independientes nuevas que surjan de cualquier subdivisión o agregación será de 10 ml.

- Parcela mínima edificable. La nueva parcela independiente surgida de cualquier subdivisión o agregación alcanzara una superficie mínima de 1.000 m². El número máximo de viviendas permitido es de 9. Deben ubicarse en parcelas independientes por lo que cualquier segregación y agregación de la que resultase un número mayor de 9 parcelas de uso residencial supondrá la cesión de la superficie restante a espacios de dominio y uso público.

- Separación de las edificaciones a linderos. El retranqueo mínimo de las edificaciones que se realicen en las parcelas resultantes será de 3 ml a todos los linderos. En caso de optar por una edificación adosada se deberá construir un proyecto común con el de la parcela colindante de modo que no se ofrezca medianeras descubiertas. Dicho proyecto deberá contar con la aprobación de los servicios municipales correspondientes y deberá ejecutarse la edificación en las dos parcelas de modo simultáneo.

- Separación entre edificaciones. Cuando se prevea la construcción de cuerpos edificados aislados dentro de la misma parcela deberán guardar una separación mínima entre ellos de 5 ml.

- Superficie ocupable. El porcentaje máximo de ocupación de parcela será del 25% sobre la superficie de la parcela neta resultante.

- Dimensiones de la edificación. La dimensión máxima de la longitud de fachada medida en cualquier dirección no sobrepasará los 25 ml. El número máximo de plantas sobre la cota de origen es de 2 + entrecubierta, incluida la baja. La altura máxima de la edificación desde la cota de origen hasta la cornisa y/o el alero es de 6 ml. Sobre esta altura solo se permitirá cubierta inclinada con una pendiente máxima del 50 %.

- Altura libre de piso. La altura libre mínima de la vivienda será de 2,60 m. Se admitirá que el vestíbulo de acceso a la vivienda, pasillos y cuartos de aseo alcancen una altura mínima de 2,40 ml.

3.4.- Condiciones de estética.

- Materiales. Se autorizará el empleo de cualquier material, incluso los industrializados obtenidos con nuevas tecnologías siempre y cuando armonicen con el entorno. Las condiciones de composición y materiales de todas las fachadas del edificio se tratarán de modo semejante a los de la fachada principal.

Queda prohibido el empleo de materiales de acabado que simulen técnicas constructivas y estructurales tradicionales así como la construcción de edificios que respondan a modelos de arquitectura popular ajena a la comarca.

- Salientes y entrantes en las fachadas. Los balcones, balconadas y miradores no podrán sobrepasar los 0,90 ml. En relación con la alineación de la fachada. Los cuerpos volados cerrados no podrán sobrepasar los 0,40 ml. En relación con la alineación de la fachada. El total de los cuerpos volados no superará el 50 % de la longitud del total de la fachada.

A ningún efecto se consideraran los aleros de la cubierta como cuerpos volados. Su vuelo máximo será inferior a 1,5 ml. Pudiendo desarrollarse en todo el perímetro de la edificación.

- Vallados. El cerramiento de parcelas a vías o espacios públicos deberá resolverse mediante elementos ciegos hasta una altura máxima de 0,80 ml., pudiendo alcanzarse hasta 1,80 ml. con materiales no opacos tales como verjas metálicas, setos vegetales, etc.

A los linderos laterales con otras parcelas se permitirá el cierre con seto y/o valla hasta 1,80 ml.

En ningún caso se permitirá el remate de los cerramientos con elementos que pudieran causar lesiones a personas y/o animales.

- Otros parámetros. Patios: queda prohibida la realización de cualquier tipo de patio. Galerías: se permite la realización de galerías con cierre acristalado o no.

Los parámetros no regulados en el presente documento estarán sujetos a las condiciones generales expresadas en los capítulos correspondientes de las Normas Subsidiarias Municipales de Bernedo y/o en la legislación sectorial o de rango superior que pueda serles de aplicación.

- Eraikuntzaren kalitatea eta higieena. Antolamenduko Alorreko Plan honek, kalitate eta higieena baldintzei dagokienez, indarrean dauden sektoreko eraikuntzaren kalitateari buruzko araudietara eta oinarriko arauetara bidaltzen du.

3.5.- Hezkuntza ekipamendurako eta herri eta gizartearen zerbitzuen ekipamendurako luraren hirigintzako eta eraikuntzako parametro zehatzak.

- Eraikigarritasuna. Erabilera honi aplikatu beharreko eraikigarritasuna $0,4 \text{ m}^2\text{erk./m}^2\text{lur da}$; horietatik $18 \text{ m}^2\text{erk.}$ herri eta gizarte interes duten zerbitzuen ekipamendurako utzi behar dira. Eraikitako gainontzeko azalera hezkuntzarako utziko da.

Azalera eraikigarriaren batuketan derrigorrezko aparkaleku kopururako utzi behar den azalera irekia ez da sartuko (eraikitako eraikuntzaren 100 m^2 -ko 1). Aparkaleku hauek eraikuntzaren barneko eremuetan edo erabilera horretarako utzi den lur sailaren barruan baina kanpoko aldean egin daitezke.

- Okupa daitekeen azalera. Lur sailean gehienaz azalera garbieraren %50 okupa daiteke.

- Eraikuntzaren neurriak. Edozein norabidetan neurtuta, fatxadaren gehieneko luzera 25 m -koa izango da.

- Gehieneko solairu kopurua. Sestraren gainean beheko solairua, lehenengo solairua eta estalkipekoa. Solairu honetan bizi daiteke.

- Eraikuntzak jatorriaren kotatik hegalkin edo erlaitzeko beheko lerroaino izan dezakeen gehieneko garaiera 6 m -koa izango da. Garaiera honen gainetik onartzen den makurtutako estalkiak gehienaz ere %50eko malda eta gutxienez %25eko malda izango du.

- Gutxienezko garaiera librea $2,60 \text{ m}$ -koa izango da.

Atal honek arautzen ez dituen parametroek Eraikuntzari buruzko Arau hauetako artikuluek xedatutakoa bete behar izango dute.

3.6.- Eraiki ezin daitezkeen eremuak.

- Hiritartzea. Antolamenduko Alorreko Plan honen planoetan hurrengo datuak adierazten dira: ibilgailuentzako bideak, bere oina eta sekzioak, aparkatzeko areak eta oinezkoentzako espaloiak eta bere neurriak, trazatua eta sestrak.

Herri erabilera eta jabariko eremu libreetarako utzi den zonan haurrak jolasteko eta olgatzeko eremu bat gaituko da, zeinen azalera gutxienez 200 m^2 -koa izango baita eta bertan gutxienez 12 m duen diametroko borobila sartu ahal izango baita. Bete beharreko zeregina bete ahal izateko, elementu egokiez hornituko da eremu hau.

Ibilgailuentzako bideek hurrengo baldintzak bete behar izango dituzte:

A.- Beste bide batzuekiko maila bereko bidegurutzak.

B.- Aldez aurretik seinalatuta egongo den oinezkoentzat maila bereko pasabideak aurreikustea.

C.- Aldez aurretik seinalatuta eta egokituta egongo diren lekueetan aparkaleku onartuak.

D.- Norabide bakoitzean egongo diren zirkulaziorako karril kopurua: 2.

E.- Zentzu biko bideetan karrilen gutxienezko zabalera: 3 m .

F.- Bideek guztira izan behar duten gutxienezko zabalera: 6 m . Zirkulaziorako bi karril sartzen dira, bakoitza zentzu baterako.

G.- Bidegurutzetan trafikoa banatzeko ez da oinezkoen babesgunerik egongo ezta zentzu biko bideetan erdibitzailerik ere.

H.- Oinezkoentzako espaloiak gutxienez $1,80 \text{ m}$ zabal izango dira.

I.- Baimendutako gehieneko abiadura: 50 km/orduko .

J.- Lur sailen barruan bide pribaturik eginez gero, hauek izango duten gutxienezko zabalera $3,50 \text{ m}$ -koa izango da eta herri bidearekin izan behar duten lotura horrela diseinatuko da: sarrerak eta irteerak bide nagusiko trafikoa oztopatzeko egin ahal izango dira, maniobra bakar batez, kontrako zirkulazioaren bandetan sartu gabe, zentzu biko bideetan ezkerreko giroetan izan ezik.

K.- aurreko atalak aipatzen dituen bide pribatu horiek berezko estolderia sistema eduki behar izango dute, herri bidera urak isur ez daitezkeen eta gainontzeko elementurik herrestan joan ez dadin.

- Ibilgailuentzako bideetan eta lur sailen barruko aparkalekuak. Aparkalekutzat kanpoko aldean dauden eremu guztiak hartzen dira,

- Calidad e higiene de la edificación. El presente Plan Parcial de Ordenación remite el señalamiento de las condiciones de calidad e higiene al cumplimiento de cuantos reglamentos y normas básicas de calidad de la edificación sectoriales estén vigentes.

3.5.- Parámetros urbanísticos y edificatorios específicos del terreno destinado al uso de equipamiento educativo y de servicios de interés público-social.

- Edificabilidad. La edificabilidad aplicable a este uso es de $0,4 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2\text{s}$ de los cuales se deberán destinar $18 \text{ m}^2\text{c}$ a uso de equipamiento de servicios de interés público y social. El resto de la superficie construida se dedicará a uso docente.

En el sumatorio de la superficie edificable no se incluirá la superficie construida destinada al número de aparcamientos obligatorios (1 por cada 100 m^2 de construcción edificada), pudiéndose resolver estos en espacios incluidos en la edificación o al aire libre dentro de la superficie de la parcela destinada al uso que nos ocupa.

- Superficie ocupable. El porcentaje máximo de ocupación de la parcela será del 50% sobre su superficie neta.

- Dimensiones de la edificación. La longitud máxima de la fachada medida en cualquier dirección no podrá sobrepasar los 25 m .

- Número máximo de plantas. Se permite sobre rasante planta baja, planta primera y planta entrecubierta, siendo esta habitable.

- La altura máxima de la edificación sobre la cota de origen hasta la línea inferior de alero o cornisa es de 6 m . Solo se permitirá la cubierta inclinada con una pendiente máxima del 50% y mínima del 25% .

- La altura libre mínima será de $2,60 \text{ m}$.

Los parámetros no regulados en el presente apartado estarán sujetos a lo especificado en el artículo correspondiente de las presentes Normas de Edificación.

3.6.- Espacios no edificables.

- Urbanización. En los planos correspondientes del presente Plan Parcial de Ordenación se expresan las características de las vías rodadas, su planta y secciones, áreas de aparcamiento y aceras peatonales, con sus dimensiones, trazado y rasantes.

En la zona destinada a espacios libres de uso y dominio público se adecuará un área de juego y recreo para niños con una superficie mayor o igual que 200 m^2 en la que se pueda inscribir un círculo de 12 m de diámetro mínimo. Se equipará con elementos adecuados a la función que ha de desempeñar.

Las características de las vías rodadas deberán cumplir los siguientes requisitos:

A.- Cruce a nivel de otras vías.

B.- Previsión del cruce a nivel de peatones previa señalización.

C.- Aparcamientos permitidos en los lugares previamente señalizados y acondicionados.

D.- Número de carriles de circulación en cada dirección: 2.

E.- Ancho mínimo de cada carril en vías de doble sentido: 3 m .

F.- Ancho mínimo total de las vías: 6 m . Incluyen dos carriles de circulación, uno para cada sentido.

G.- No existen isletas separadoras de tráfico en los cruces ni medianas en las vías de doble sentido.

H.- Las aceras peatonales tendrán un ancho mínimo de $1,80 \text{ m}$.

I.- Velocidad máxima permitida: 50 km/h .

J.- En caso de realizarse vías privadas en el interior de las parcelas se dispondrá de una anchura mínima de $3,50 \text{ m}$, y la conexión con la vía pública deberá proyectarse de forma que las operaciones de entrada y salida se puedan efectuar sin crear interferencias con el tráfico de esta y de una sola maniobra, sin invadir las bandas de circulación contrarias, a excepción de los giros a la izquierda en las vías de doble sentido.

K.- Las vías privadas a las que hace referencia el apartado anterior deberán contar con un sistema de saneamiento propio que impida la aportación de aguas y productos de arrastre a la vía pública.

- Aparcamientos en vías rodadas e interior de parcelas. Se consideran como aparcamientos todos los espacios al aire libre en los

baldin eta bertan ibilgailuak aparkatzea onartzen bada eta erabilera horretarako bereziki seinalatuta eta egokituta badaude.

Planak xedatzen dituen aparkalekuak hurrengo lekuetan egon daitezke: ibilgailuentzako bideetan, dagokion planoetan zehaztutako tokietan eta lur sailen barruan kokatutakoak (etxebizitza bakoitzeko 2).

Ibilgailuentzako bideetan dauden aparkalekuak behar bezala seinalatuta egon behar dira, zoladuran behar diren markak edukita. Trafikorako herri bideetan eta hauen espaloien gainean aparkatzea debekatuta dago. Zamaketa lanak lur sailen barruan egin behar izango dira.

Antolamenduko Alorreko Plan honetan xedatzen diren aparkaleku plaza gutzietatik gutxienez %2 erabiltzaile elbarrituentzat mantenduko dira. Erabiltzen horretarako aparkaleku plaza kopurua 2 izango da.

Lur sailen barruan egongo diren aparkalekuak lur sail bakoitzeko egin den eraikuntza proiektuan zehaztu behar dira. Derrigorrezkoa da lur sail bakoitzeko bi aparkaleku ezartzea, hauen gutxienezko azalera angeluzuzena 2,40 x 4,75 m-koa izango da, gehi zamaketa lanetarako behar den espazioa. Lan hauek herri bidetik kanpo egingo dira.

3.7.- Hirigintzako zerbitzuak.

- Estolderiaren zerbitzua. Hobi septikoak eta sektoreko sare orokorrekiko lotura ez den beste edozein isurketa modu debekatuta daude.

- Argindarraren zerbitzua. Argindarra banatzeko sare orokorra oso-osorik lur azpian joango da, baita eremu libreetan ere. Eskema orokorrak gartzen dituzten hirigintza proiektuek modu banatu batez eta oso-osorik zerbitzu honen ezarketaren kostua zehaztu behar dute eta Antolamenduko Alorreko Plan honek xedatzen dituen obrak eta instalazioen sareen ezarketaren kostu xehatua agertu behar dute.

- Hiritartze osagarriak. Hiritartze osagarritzat lur sailen barruko eraikuntzaren eremu libreetan egin beharkeko hirigintza obren multzoa hartzen da, lur sailen jabeek ordaintzen dituztenean eta lur sail bakoitzerako idazten den eraikuntza proiektuetan islatzen direnean.

HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

5.160

798/2001 FORU AGINDUA, uztailaren 30ekoa, Rivabellosako OR-1eko 27. etxadiaren inguruan Erribera Beitiko Hiri Antolamenduko Arauen xedapen aldaketa egiteko espedienteari buruzkoa.

«Ikusita Rivabellosako OR-1eko 27. etxadiaren inguruan Erribera Beitiko Hiri Antolamenduko Arauen xedapen aldaketa egiteko espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Erribera Beitiko udalak, 2001eko urtarrilaren 30ean, Rivabellosako OR-1eko 27. etxadiaren inguruan Erribera Beitiko Hiri Antolamenduko Arauen xedapen aldaketa egiteko espedientea behin-behineko onestea erabaki zuen, eta espedientea hila-bete batez jendaurrean jartzea erabaki zuen. Horretarako, argitara eman zen espedientea, 2001eko otsailaren 23ko 23 zenbakidun Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN eta urte bereko martxoaren 5eko El Periódico de Alava eta El Correo egunkarietan.

Bigarrena.- Jendaurrean izan zen bitartean, inork ez zuen alegaziorik aurkeztu. Horrenbestez, Udalak, 2001eko martxoaren 27an, behin-behineko onartu zuen espedientea, eta Arabako Foru Aldundiari bidali zion, behin betiko onar zezan. 2001eko apirilaren 20an sartu zen Foru Aldundian.

Hirugarrena.- Martxoaren 5eko 35/2001 Dekretuko (Autonomia Erkidegoko erakunde erkidean hirigintza arloko zerbitzua Arabari transferitzeko dekretua) eranskineko a) idatz zatiko hirugarren puntuan xedatutakoarekin bat, espedientearen aldeko txostena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, ekainaren 29ko 4/2001 bilkuran.

que se autorice el estacionamiento de vehículos y estén específicamente señalizados y acondicionados para dicho uso.

Los aparcamientos previstos en el plan se componen de los situados en la vía rodada, en los lugares especificados en el plano correspondiente, y los ubicados en el interior de las parcelas (2 por vivienda).

Los aparcamientos situados en las vías rodadas deberán estar señalizados debidamente con las correspondientes marcas en el pavimento, quedando prohibido el estacionamiento en las calzadas de las vías públicas de tráfico y sobre las aceras de las mismas. Las operaciones de carga y descarga deberán realizarse en el interior de las parcelas.

Se reservara, del total de las plazas de aparcamiento previstas en el presente Plan Parcial de Ordenación, un mínimo del 2 % para usuarios minusválidos. Las provisiones de plazas de aparcamiento concretan en dos el número de plazas para este uso.

Los aparcamientos situados en el interior de las parcelas deberán especificarse en el correspondiente proyecto de edificación que para cada una de las parcelas se realice, siendo obligatorio disponer de dos plazas de aparcamiento por cada parcela, con una superficie rectangular mínima de 2,40 ml. x 4,75 ml., así como del espacio necesario para la carga y descarga, que se realizara fuera de la vía pública.

3.7.- Servicios urbanísticos.

- Servicio de saneamiento. Se prohíben las fosas sépticas o cualquier otro procedimiento de evacuación que no sea el de conexión a la red general del sector.

- Servicio de energía eléctrica. La red general de distribución de energía eléctrica será subterránea en su totalidad, incluso en los espacios libres. Los proyectos de urbanización que desarrollen los esquemas generales deberán especificar de forma separada e integral el coste de implantación de este servicio, así como el desglose de los costos íntegros de las restantes obras e implantación de redes de instalaciones previstas en el presente Plan Parcial de Ordenación

- Urbanizaciones complementarias. Se entiende por urbanizaciones complementarias al conjunto de las obras de urbanización que hayan de realizarse en los espacios libres de edificación del interior de las parcelas y que se llevaran a cabo por cuenta de los propietarios de las mismas, viniendo reflejadas en los correspondientes proyectos de edificación que para cada una de ellas se redacte.

DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y URBANISMO

5.160

ORDEN FORAL 738/2001, de 30 de julio, en relación con el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja en la manzana 27 de la OR1 de Rivabellosa

“Visto el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja en la manzana 27 de la OR1 de Rivabellosa.

ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Ribera Baja, con fecha 30 de enero de 2001, decidió aprobar inicialmente la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja en la manzana 27 de la OR1 de Rivabellosa, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 23 de 23 de febrero de 2001 y en los diarios “El Periódico de Alava” y “El Correo” de 5 de marzo del mismo año.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no se presentó ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento, el 27 de marzo de 2001, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 20 de abril de 2001.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado A) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 4/2001, de 29 de junio.